



IKASTEHEETAN ERE MOZORROTURIK

Tolosako ikastetxeetan ezezik, eskualdeko gehienetan ospatzen dituzte Inauteriak, jaialdi bereziekin » 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2008-01-31

VIURTEA 1.350.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA



WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

IRUDIMENAREN EZTANDA

INAUTERIAK 2008 12:00etan hasiko dira festarik zoroenak, eta Astartita gauera arte ez dute etenik izango

PRESTAKETAK Dena prest izateko entsegetan gogor aritu dira aisialdi taldeak, Astelenitako dantzarako 4-5



Goian, Kazkabarra taldekoak, eta behean Kirikiñokoak entsegetako une batean. I. TERRADILLOS

Kilometroak 08
ere Tolosako
Inauterietan
izango da
hiru ekintza
desberdinekin

KILOMETROAK Taberna,
tonbola eta auto baten
zozketa izango dira 6

19-90 19-90 19-90

BISITA GAITZAZU INAUTERIETAN!!!

- JATORRI DESBERDINETAKO ARDOAK
 - PINTXO BEREZIAK
- MUSIKA ELEKTRONIKOA
- GAU GIRO BIKAINA

IBON LEUNDA
KOLDO SARASOLA
AITZIBER JAUREGI

EUSKAL HERRI PLAZA 5 • 20400 TOLOSA



EHNELUR Elkarte Kooperatiboak honako langileak behar ditu:

- Langile bat komertzial lanak egiteko aseguruaren arloan, Tolosan.
- 2 langile aseguruaren kudeaketarako, hilabete batzuetarako, Tolosan eta Azpeitian.
- Teknikari bat errenta aitorenak egiteko, hilabete batzuetarako, nagusiki Tolosan.
- Langile bat, dokumentuak eskaneatzeko, hilabete batzuetarako, Tolosan.

Interesatuak otsailaren 6a baino lehen EHNELURekin harremanetan jarri ehnelur@ehnelur.net helbidean eta informazio zehatzagoa bidaliko zaie.



A Argazki zaharra



Tolosako Sukalde txaranga 1959an

TOLOSA • Plintxana txaranga 1959an, Letxu kaleko Txaparro sagardotegian. Goian, Martin Martinez klarineta eta Carlos Garcia oboea; erdian, Jose Ramon Lasarte 'Txatarrila', Juanjo Gorostegi saxofoia, Miguel Martinez tronpeta, Eduardo Etxeberria bonbardinoia,

Gerardo Garcia tronpeta eta Periko de Pedro bonboa; behean, Felix Mateo txapak, Xabier Garikano eta Jose Ramon Garikano. Plintxana Txomin tabernatik ateratzen zen, Arostejeta kalean (gero Txalupa izan zena). Orain Ikatza tabernatik ateratzen da, plaza Berrian.

Konfetiaren sorrera

» Pasadizoa



Parisko irar-lantegi aundi, egutiak zegizkiten baten, be-roien ixiki al izateko txulatu bearran arkitzen ziran, da gero, ondakiñ karrokadak botatzen zituzten. Beñola, esandako aldizkari ortan dagerkizunez, bi langille, jolaspidez, paper-apur oiek alkarri botaka asi ziren. Nagusiari oso gogozko izan omen zitzaion jolas ua ta agindu zuen apurtxoak zorrotan sartu ta Parisko Opera Antzokira eramateko. Ala, berak eta aurretik zabaldu zizkien adiskideek, mozorrotuei eskubeteka botatzen asi ziren, jendetzaren txalo andiak jasoaz. (Donostiako *La perla* euskara aldizkaria. 1903-garren otsailaren 22a).

» GARRAIO PUBLIKOIA: ORDUTEGI BEREZIAK

GAUR

■ **Hiribusa.** Ohiko ibilbideak egin-go ditu eta azken bidaia 22:00etan izango da.

■ **Tolosaldea Bus.** Gaueko zerbitzu berezia:

- Tolosa (Zumardi Txikia)- Lurre-Amarotz- Alegia- Amezketak- Izkaztegieta 00:00etan, 02:00etan eta 03:30ean.

- Tolosa (Zumardi Txikia)- Lurre-Amarotz- Ibarra- Berrobi- Eldua- Elduain- Berastegi 01:00etan, 02:45ean eta 04:15ean.

■ **TST.** Zerbitzu bereziak:

- Tolosa (Santa Klara)- Anoeta- Irura- Villabona- Zizurkil- Asteasu 23:30etik 04:30era 30 minutuero.

- Asteasu- Zizurkil- Villabona- Irura- Anoeta- Tolosa 23:00etatik 04:00etara 30 minutuero.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

GAUR

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

BIHAR

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.

«Ondo pasatzeko Tolosakoak dira onenak, besteetan itxurari ematen diote garrantzia»

ANDRES GAZTAÑAGA » Inauterizalea

INIGO TERRADILLOS

Gaur hasiko dira pregoiarekin batera Inauteriak, tolosar askoren ztat, ia denentzat, hutsik egin ezinezko urteroko hitzordua. Halaxe da Andres Gaztañagarentzat (Tolosa, 1917). Makina bat Inauteri ikusi eta gozatu ditu, eta asko eta asko izan diren arren emozio handiz itxaroten ditu hurrengoak, eta «zirrara berezia» sentitzen duela dio Ostegun Gizenaren atarian.

Nola ezagutu zenituen Inauteriak?

Txiki-txikitatik tolosar guztien moduan. Gurasoak ere Inauterizaleak ziren, eta beraz, txikitatik barneratu ginen gu ere.

Zein mozorro aukeratu zenuke?

Garai batean desberdina izaten zen. Lehen ez geneuzkan gaur egun dauden baliabideak, beraz, mozorroa egiterako orduan eskura genuena baliatzen genuen. Kapelak, bibotea, trapuak, soinekoak... guztia izaten zen erabilgarri. Helburua, azken batean, mozorro dibertigarri bat egitea zen.



Motorrean igota, 40. hamarkadako Inauterietan. HITZA

Zer gustatzen zaizu bereziak Inauterietatik?

Ez nuke zerbait aukeratu, guztia gustatzen zaidala esango nuke, osotasunean baitira Inauteriak diren; kaldereroetatik hasi eta, azken egunera arte guztiek dute zerbait, danborradak, txaranga...

Badira Inauterietan Tolosatik kanpora joaten direnak lasaitasun bila.

Bai, eta ulertzekoa da Inauteriak gustatzen ez zaizkionarentzat. Nik ordea, ezingo nuke Inauterietan Tolosatik urrun egon. Urtero egon naiz Inauteriak direnean Tolosan, eta horrela egingo dut aurre bezala datozen urteetan ere.

Inauteriak garai desberdinetan bititu dituzu. Zertan aldatu direla esango zenuke?

Urtetik urtera Inauteriak desberdinak dira, izan ere, urtero mozorro berri bat pentsatu behar duzu jendea harrিতa uzteko, eta irribarra sortarazteko. Bestalde, lehen esan bezala, Inauteriak, beste gauza guztiak bezala, asko aldatu dira denboran zehar. Esaterako, lehen



1946. urtean, mozorrotuta. HITZA

bi edo hiru txaranga baino ez ziren izaten. Baina hori bai, giro ona beti izan da Inauterietan Tolosan. Hemen bakarrik mantendu ziren, beraz, horrekin dena esanda dago. Inauteriak herri askotan ospatzen dituzte. Zer dute Tolosakoek hain bereziak izateko?

Hemen afizio handia dago, eta esan bezala, urte batekoak bukatu bezain pronto hurrengo urtekoen pentsatzen ari gara. Dibertitzeko eta ondo pasatzeko Tolosakoak dira onenak, besteek itxurari baino ez diote garrantzia ematen.



» EGITARAUAK HERRIZ HERRI

**TOLOSA
OSTEGUN GIZENA**

- **09:13.** Etxe-Berriko oinordekoen Udal Bandoa.
- **11:30.** Udal Txistulari Bandak Inauterietako Zortzikoa joz egingo du ohiturazko ibilbidea.
- **11:45.** Kabi-Alai elkarteko korporazioaren pregoia.
- **12:00.** Plaza Zaharrean, Suziria jaien hasiera iragartzeko.
- **12:00.** Pintxana eta Kabi-Alai txarangen irteera, Arostegeta kaletik.
- **16:30.** Zezen-plazan xexen-festa, Pintxana eta Kabi-Alai txarangek alaitua.
- **Ondoren.** Kalejira.
- **23:00.** Aurrera Kirol Elkartearen danborrada.

OSTIRAL MEHEA

- **12:00.** Ozenki Txistulari taldearen kalejira.
- **16:30.** Zezen-plazan xexen-festa, Kabi-Alai txarangek alaituta.
- **Ondoren.** Kalejira.
- **22:45.** Arpegi Taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia Leidor aretoan.

ZALDUNITA BEZPERA

- **10:30.** Erraldoi eta buruhandiak. Irteera Plaza Zaharratik.
- **11:30.** Eta 17:00etan Kabi-Alai elkarteko txarngaren irteera.
- **11:45.** Dantzari txikien kalejira abiatuko da Triangulotik.
- **17:00.** Haur Danborrada aterako da Geltoki kaletik.
- **22:30.** Tolosako danborradaren irteera Triangulotik.
- **23:30.** Iraunkorrek eta Oriako txaranga kalez kale.
- **23:30.** Plaza Berrian Angelays, Evil Code eta Homo Demens.

ZALDUNITA

- **08:00.** Diana, Tolosako Musika Bandarekin.
- **08:45.** Herriko Txistulari Bandak ohiturazko ibilbidea eginez Inauterietako Zortzikoa joko du.
- **10:00.** Txarangen irteera.
- **10:30.** Plaza Berrian sokamuturra.
- **11:00.** Karroza eta konpartsen irteera.
- **15:45.** Udal Txistulari Bandak *Idiarena* pieza joaz egingo du ohiturazko ibilbidea.
- **16:00.** Kalejira Alcoyano, Urdira Txiki, eta Sukalde txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazaraino.
- **16:30.** Zezenak zezen-plazan; txaranga eta txistulariak ariko dira ikuskizuna alaitzen.
- **Ondoren.** Kalejira.
- **19:00.** Dantzaldia Berdura Plazan Alcoyano, Urdira Txiki, eta Sukalde txarangekin.
- **19:30.** Zerkausian *Trikutxiki* diskojaia.
- **23:30.** Incansables eta Oriako txaranga kalez kale.

ASTELENITA

- **09:00.** Txarangen irteera.
- **10:30.** Plaza Berrian sokamuturra.

- **11:00.** Karrozen eta konpartsen irteera.
- **16:00.** Kalejira Poca Tripa, Tolosano eta Arco Iris txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazara.
- **16:30.** Zezenak zezen-plazan; txaranga ariko dira plazan bertan ikuskizuna alaitzen. Ondoren, kalejira.
- **19:00.** Dantzaldia Berdura Plazan Poca Tripa, Tolosano eta Arco Iris txarangekin.
- **19:30.** Zerkausian *Trikutxiki* diskojaia.
- **21:30.** Iturritxiki Plazatik zezen suzkoa irtengo da.
- **23:30.** Plaza Berrian Trikujai diskojaia.
- **23:30.** Incansables eta Bonbernea txaranga kalez kale.

ASTEARTITA

- **06:00.** Udal Txistulari Bandak *Alborada* joko du Udaletxeko arkupeetan, Berdura Plazan eta Felipe Gorriti Plazan.
- **08:00.** Pattar zezena zezen-plazan. Ondoren kalejira.
- **10:30.** Plaza Berrian sokamutu-

ranga eta Txilaba Elkartearen konpartsa lurreamendi Egoitzara joango dira.

**TOLOSAKO TXOSNAK
GAUR**

- **12:00.** Txosnen irekiera: Euskal Herri plazan izango da eta bertan, Inauteriak animatu eta «festa giro herrikoia sortuko duen karpa» jarriko dute.
- **12:30.** Txupinazoa eta pregoiaren irakurketa. Jarraian txistorrada izango da.
- **Gauean.** DJ Fer.

BIHAR

- **18:00.** Txosnen irekiera.
- **20:30.** Zahagi ardoa hurbiltzen direnentzat («Zuk afaria, guk edaria! Txotx!»).
- **23:00.** Musika kontzertuak: Desordutan (Tolosa) eta Inershow (Herrialde Katalanak).

OTSAILAK 2, ETZI

- **17:00.** Tolosako haur danborradaren ondoren haur txolatada antolatuta dute, eta baita aurpegi pintaketa eta marrazketa

gurasoekin batera eskolako ikasleak. Merienda egongo da gero.

OTSAILAK 3, IGANDEA

- **09:00ak aldera.** Txantxoan dantza emanaldiak ikusgai herrian zehar.
- **10:30ak aldera.** Txantxoan emanaldia elizaren aurrean. Ondoren, Larraizko ermitaren mezaren ondoren beste saio bat egingo dute.

**ADUNA
BIHAR**

- **15:00.** Elordi plazako udal lekalean elkartuko dira eskolako haurrak eta jaialdia egingo dute.
- **Ondoren.** Merienda.

**ALKIZA
BIHAR**

- **14:30.** Plazan elkartuko dira eskolako haurrak jaialdia egiteko. Gaia zirkoa izango da eta malabaristak, magoak, pailazoak, domadoreak eta lehoiak izango dira ikuskizunean. Ondoren merienda egingo dute.



Albizturen atzo egin zuten Inauterietako jaia: bi aldiz errepikatu zuten emanaldia, motza izan baitzen. ESTI EZEIZA

- rra, San Esteban txaranga alaituta.
- **11:00.** Karrozen eta konpartsen irteera.
- **15:45.** Herriko txistulari bandak, betiko ibilbidea eginez, *Idiarena* pieza joko du.
- **16:00.** Kalejira Kabila, Veleta-Aiz Orratz eta Txapel Handi txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazara.
- **16:30.** Zezenak zezen-plazan; txaranga eta txistulariak ariko dira ikuskizun guztian zehar plaza alaitzen.
- **Ondoren.** Kalejira.
- **19:00.** Dantzaldia Berdura Plazan Kabila, Veleta-Aiz Orratz eta Txapel Handi txarangekin.
- **23:30.** Incansables Zaharrak txarngaren irteera.
- **00:00.** *Sardinaren hileta* konpartsen irteera Gure Txokoa elkartetik.

OTSAILAK 10, IGANDEA

- **Piñata igandea.** Poca-Tripa txar-

- erakustaldirako marrazketa txokoa ere.
- **Gauean.** DJ Bull, dantzatzeko eta parranda egiteko.

OTSAILAK 3, IGANDEA

- **18:00.** Txosnen irekiera Bonbernea txarangekin.
- **Jarraian.** Kontzertuak: Despervicio eta Kantafloor taldeak.
- **Gauean.** Aritz Soun System-ekin musika.

OTSAILAK 4, ASTELEHENA

- **18:00.** Txosnen irekiera. «Gozatu eta borrokatu txosna gunea!».

OTSAILAK 5, ASTEARTEA

- **18:00.** Txosnen irekiera. «Gozatu eta borrokatu txosna gunea!».

**ABALTZISKETA
GAUR**

- **14:30.** Kalejira kalean. Arrantzalez aterako dira

**AMEZKETA
GAUR**

- **11:00.** Txorixoa izango da eskolan.

BIHAR

- **15:15a aldera.** Jaialdia egingo dute eskolan. Txarra eginez gero, eskolako frontoian. Merienda guraso elkartearen eskutik.

OTSAILAK 3, IGANDEA

- **09:00.** Talai dantzarien saioak ikusgai herrian zehar, kalejiran. Egun osoan zehar, puska biltzen.

OTSAILAK 4, ASTEARTEA

- **09:00.** Talai dantzarien saioak herrian zehar, puska biltzen.

**ASTEASU
BIHAR**

- **15:15.** Eskolatik abiatu eta frontoirira joango dira. Bertan jaialdia egingo dute. Gaia Asteasuoko Olinpiadak izango da. Ondoren merienda egingo dute.

**BERROBI
GAUR**

- **Goizean.** Jolasak egingo dituzte ikastetxean: Altxorraren bila.
- **11:00ak aldera.** Haurrak mozorroto egingo dira eta dantza eta musika izango da. Gurasoek txorixo bokadiloak prestatuko dituzte.

**BIDEGOIAN
GAUR**

- **10:00.** Mexikanoz jantzita udal-letxe aurrean ikuskizuna eskainiko dute. Kalejira Goiatzera joango dira eta han beste ikuskizun bat eskainiko dute. Hamaiketako estatuan egingo dute.
- **14:30.** Haur guztientzako jolasak musikarekin eskolan bertan, eta bakoitza nahi duen moztorra jantzita. 16:15a arte.

**IBARRA
GAUR**

- **09:00 etatik 10:30a aldera.** HH eta LHkoen jaialdia.
- **10:45.** Gelaka argazkiak aterako dituzte.
- **11:00.** Plazara joango dira ikastetxetik musika eta moztorroekin. Plazan buruhandiak izango dira.
- **12:00.** Gurasoek egositako txorixo banatuko dute. Nahi duen guztia joan daiteke.

**IKAZTEGIETA
GAUR**

- **15:30.** Eskolako gimnasioan ikasgela bakoitzaren dantzaldia. Gurasoak eta herritarrek gonbidatuta daude.

**IRURA
GAUR**

- **11:30 aldera.** Haurrak moztortuta aterako dira plaeta dantzak egingo dituzte. Txarra eginez gero trinketera joango dira.

**VILLABONA
GAUR**

- **15:00.** Plazan elkartuko dira (eguraldi txarra eginez gero kiroldegian) herriko ikastetxe guztiak (HH eta LH) eta jaialdia egingo dute. Ondoren kalejira egingo dute. Merienda izango dute eta gero, 18:00etan Udalak zinema emanaldia eskainiko die.

**ZIZURKIL
BIHAR**

- **15:30.** Herriko hiru ikastetxeen desfilea. Joxe Arregi plazan bilduko dira hiru ikastetxeko ikasleak. Emanaldi ezberdinak eskainiko dituzte. Udalaren eskutik merienda izango da.

@ **Bideoak.** Gure webgunean *bideoak* atalean sartuz gero, eta Inauterietako egunetan zehar azken ordukoetan begiratu gero, Tolosakoan eta Tolosaldeko herrietan aurkituko ditugun Inauterietan buruzko irudiak eta bideoak ikusteko aukera izango duzu. Bali-teke horietako batean zuzenean agertzea... Bestela ere, urteko edozein sasoiatan nahibeste alditan ikus ditzakezu, nahi dituzanak.



KALERA, DANTZARA!

Inauteriak Lan handia egin ostean, Atsedena, Kazkabarra, Kirikiño, San Bernardo, Ttenttek eta Txiribitu taldekoak prest daude Astelentzarako.

EZBIZA
Irri da azkenen Ostegan Gizona, eta aurretik egin ugari ditugu urteko festarik erorenaz gozatzeko, Ostrin, Meha, Zaldua eta Kepera, Zakurra, Asteleña, Asteirra... Mozorroak, karrak, kompartak eta dantzak, guztiak prest eduki behar da jai behar bezala irretzeko, eta horretan egin dira, gainerako herriarrek bezala, aisialdi taldeko kideak azken asteetan. Aurtén Inauteriak iritzi baino goiztiago eterridenez beste urteetan baino entsegua gutxiago egiteko aukera izan duten arren, Astelentzaren beste zaldak izan diren peregabeko eskainiko dute guztiak.

Atsedena
Ia elan lagunez osatuta dagoen aisialdi taldekoak Disney ekizetako filmetan oinarritu dira. Horien bestez, Kume narri, zortzi potxak, Pinotxo, Gepeto eta ahar ikusi ahal izango dira astelehenean. Azaro amaieran hasi ziren prestatzen emanaldia Atsedena koak. Aisialdi taldeko kideak beraien plataforma txiki bat eramango dute, non Disneyko filmetako dekoratuekin atonduko dituzten. Lau minutu inguru iraungo du Atsedena koen sioiak. Olinurri jarriz, gaitzen San Frantzisko rajongo dira, gainontzeko aisi taldeen emanaldiak ikusteko. Ondoren, 15:00ak aldera kalean zehar abiatuko dira emanaldiak eskainiz. Ondoren bazkaltera joango dira, beraien egutzara. Bazkalertean zeneratzen joango dira, hauek ikusi eta berriro, dantza saioei ekingo diote. Iluntzean, 19:00ak aldera emango diote amiera egoneko ikusizunari.

Kazkabarra
Kazkabarra taldeko 300 kideak euskal mitologiako pertsonaiez mozorrotuta irango dira dantzara, hauek, Tartako, Marti, Galzagorri eta Lamiek. Gobonetako jai egunen ostean hasi ziren entseguekin. Urtero bezala, bi dantza desberdin prestatu dituzte bata LHStik LHsra arteko gazte txoko egingo dute eta 2 minutu eta erdi-ko iraupena izango du, eta bestea DBHtik aurrerakoek dantzatzeko dutena izango da, eta 2 minutu eta

erdi inguruko iraupena izango du. Astelentzaren egongo dute azken entsegua. Kalera atera aurretik, Sakramentinetan geratuko dira, gogozaz gero, gogozaz eta azken presatzeak egiteko. Gainerako aisialdi taldeen aurretik dantza egiten ondoren, jendaurtean egin, eta bazkaltera joango dira Sakramentinetara, eta goxo beste guztiak bezala zeren-plazara joango dira. Arratsaldean ere dantzatzen irango dira kalera.

Kirikiño
Urtarrileko lehenengo astean hasi ziren Kirikiño aisialdi taldeko ia 300 kideak entseguekin. Aurtén Harrikerarrez mozorrotuko dira, hau da, Pedro, Bilma, Pablo, Betty eta koponiz. 6 minutu eta 25 segundoko dantza prestatu dute, eta monitorea «oso gustara» daude dantza egiteko. Ondoren, beste taldekin elkartuko dira, eta guztiak dantza ikusi ostean, jendaurtean erakusteko txanda iritsiko da. 14:30ak arte dantzatzeko dute Gorritinara iritzi arte, eta bazkaltera Jesuinitara bueltatuko dira. 16:00ak zeren-plazara joango dira, eta arratsaldean dantza egingo dute berriro ere kalean, gazte txoko 19:00ak arte, eta monitorea eta gurasoek 20:30-21:00ak arte.

San Bernardo
San Bernardo aisialdi taldeko 100 lagunek hartuko dute parte asteleheneko jaialdian. Hauek Gospel abertarrez mozorrotuko dira. Beraien plataforma txiki bat eramango dute eta bertan, organoa eta partitura batzuk eramango dituzte. Hiru minutu inguru iraunen du San Bernardoko prestatutako koreografiak. Abenduaren erdikalduan hasi ziren prestatzen beraien emanaldia. Erabiliko duten musikari dagokionez, abesti euskerak nahiz atzerrikoak erabiliko dituzte. Mozorro prestatzeko garrantzi handia izango du entseguek aurkezten dituzte proposamenak, eta hasien artean aukeratzeko dute begiraleak. San Bernardoko ere 10:30ak aldera ate-

grafiak, eta hau, filmeko kantuekin egongo dute. Koreografiak batera, mozorroak ere talde kideek egin dituzte. Joan den urtean buruntzi Gresa-ko pertsonaiez mozorrotzeko iketa eta aurtén gaztetuko dute. Dantzariek batera auto bati lotura, plataforma bat eramango dute. Hauek biek, filmean girozota egongo dira.

Txiribitu
Txiribitu aisialdi taldeko 40 kideek denboraren makina hartu dute aurtengoan gai bezala. Hala, lau ardo desberdin inbultuak dituzte euren dantzariek. Historiaurrea, Erdi Aroa, 80 hamarkada eta ator-

kizuna. Beste urteetan ez bezala, gazte txoko eta zazpi monitorea gurasoekin ere aterako dira dantzan. 4 minutu inguruko ikusizuna eskainiko dute, eta guzti prestatzeko abenturako oporaldian egin zuten lehenabiziko entsegua, eta bihar eta etzi egongo dituzte azken entseguek. Astelentzaren, 08:30ak geratuko dira monitorea. Batzuk Ferialekura joango dira plataforma prestatzera, eta besteak, beriz, Ibarako kalean egongo dira aduen ikusgai ematen. Goizetik eguerdira arte dantza egin eta goxo Ibarako kalean bazkalduko dute, eta gero zeren-plazara joango dira.

Beti Alai
Garaian garaian jarraitzen jarraitzen
Arrakietan berezia
© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 - Errenserri kalea, 16 - 20400 TOLOSA



Atsedena taldeko Santa Maria elizaren ondoan egin dituzte entseguek. | TOLOSA



TALDEAK

Tolosako bost talde anko dira, ondorengo hauek Atsedena, Kazkabarra, Kirikiño, San Bernardo eta Ttenttek eta Ibarako bat, Txiribitu. Hauek Astelentzaren ateraiko dira kalera euren dantzak erakustera.

Atsedena
■ **Aurtengo dantza.** Disney (Eduard, Euri eta zazpi potxak, Gepeto, potxi Fan eta Wendy).
■ **Adin-tartea.** 6 urte tik aurrera.
■ **Arduradunak.** Begiraleak.

Kazkabarra
■ **Aurtengo dantza.** Euskal mitologiako pertsonaiek (Tartako, Marti, Galzagorri eta Lamiek).
■ **Adin-tartea.** 11 urte tik gurasotzara.
■ **Arduraduna.** Miriam Ibañez.
■ **Partaide kopurua.** 300.
■ **Adin-tartea.** Begiraleak eta laguntzaileak.

Kirikiño
■ **Aurtengo dantza.** Harrikerarrek (Pedro, Bilma, Pablo, Betty...).
■ **Adin-tartea.** 9 urte tik gurasotzara.
■ **Arduraduna.** Miriam Ibañez.
■ **Partaide kopurua.** 283.
■ **Adin-tartea.** 6 urte tik aurrera.
■ **Arduradunak.** Begiraleak.



Ibarako Txiribitu aisialdi taldekoek kirikiñekin egin dituzte beraien entseguek. | TOLOSA




Ttenttek aisialdi taldekoak Gresa filmean oinarritu dira beraien dantzak eta mozorroak prestatzeko garrantzi handia. | TOLOSA



Kirikiño aisialdi taldekoak Harrikerarrez mozorrotuta egongo dute dantza; Irudian Eskolapietako patioan, entsegutako batean. | TOLOSA

■ **Adin-tartea.** 6 urte tik aurrera.
■ **Arduradunak.** Begiraleak.
■ **Partaide kopurua.** 40.
■ **Adin-tartea.** 9 urte tik 13 urtera eta gurasoak.
■ **Arduradunak.** Begiraleak, begirale laguntzaileak eta begirale ohiak.



San Bernardo taldekoak entsegutako batean. | TOLOSA



San Bernardo taldekoak entsegutako batean. | TOLOSA



Kirikiño aisialdi taldekoak Harrikerarrez mozorrotuta egongo dute dantza; Irudian Eskolapietako patioan, entsegutako batean. | TOLOSA

Badatoz Inauteriak!



» Zilarrezko Jaurtiketa

Jon Altuna

Larunbatean nabaria zen giro berezia Tolosako kaleetan, jende ugari zebilen Arostegetian barrena. Izan ere, urteko festa onenak iristear dira: Tolosako Inauteriak; eta urtero bezala jendea gogotsu ikusten da. Ostegunetik aurrera bizimodu berri bat hasten da Tolosaldeko jendearentzat: txar-rangak, dantzak, jana, edana, mozorroak... Ondo pasatzeko beharrezkoak diren osagai guztiak. Hauek eskura izanik nola ez gara ba gustura ibiliko.

Oraindik mozorroak ongi antolatuta gabe ditudala aitortu beharra dut, baina handik edo hemendik zerbait lortuko dugu, mozorrorik gabe ez baitago Inauteriak.

Inauterietan batera larunbatean urteko partidu politenetako jokatzeko aukera izango dugu. Realaren aurka gipuzkoar derbia Anoetan. Asteburu polita izango da ezbaierik gabe; partidu polita larunbatean eta Inauteriak, berriz, igandean.

Hala ere, partidu gogorra izango da Anoetako, izan ere, bi taldeak azken partidak gaitzetik gatzoz eta puntuak lortzea garrantzitsua izango da. Hau dela eta, derbiak izan ohi duten giro berezia gain, puntuen beharrak nerbio eta tensio momentuak ekarriko ditu. Kontuak kontu, talde gipuzkoarrek izanik kiroltasuna nagusitzea espero dugu. Ea partiduan zehar bi ibarrek, aurkari bezalabada ere, zelaian batera egoteko aukera dugun, izan ere, herriki eta lagunentzat polita izango da. Beti esan ohi den bezala onenak irabaz badela baina azkenean Eibarrek irabazten badu hobe.

Bukatzeko ondopasa ditzazuela Inauteriak, momentua aprobetxatu eta gero gerokoak.



Udala eta Merkatarik Elkarteari eskerrak eman zizkion Kilometroak 08k. A. IMAZ

KMK-08 Inauterietan egongo da hiru ekintza bultzatuz

Kilometroak 08 » Ekintzak «aurrera ateratzeko eman duten laguntza» eskertu zuen lurako lkastolaren zuzendariak.

ASIER IMAZ

Tolosako Inauterietan *Eraikitzen* Kilometroak 2008 Irura ekimena hiru ekitaldierekin egongo da. Joxe Mendizabalek, KMK-08ko Koordinatzaile orokorrak, aurkeztu zituen egun hauetan Tolosarako prestatu dituzten ekimenak prentsaurrekoan.

Mendizabalen ostean, Josune Aiestaran, Irurako Ikastolako zuzendariak hartu zuen hitza, Tolosako Udalarik eta *Igarondo* zein *Alde Zaharra* Merkatarik elkarteek eskerrak emateko.

Hiru ekitaldi Inauterietan

Kilometroak aurten urriaren 5ean izango bada ere, Tolosako Inauterietan KMK-08k bere tartea izango du Joxe Mendizabalek aurkeztu dituen hiru ekimenen esker.

Lehen ekimena, Taberna izango da, «Arostegetia eta Rondilla kaleetatik du sarrera, lehen Guria taberna izan zenaren lekuan dago. Urtarrilaren 25ean, Kalderero egunean, zabalik egon zen eta Inauterietan bihartik otsailaren

5era, biak barne, zabalik egongo da egunez eta gauez». Mendizabalek aipatu duenez, taberna edaria eta pintxo hotzak salduko dituzte.

Bigarren ekimena KMK08-ren aldeko tonbola izango da. «Igandean, otsailaren 3an, egongo da zabalik goizean eta arratsaldean. 2.500 opari zozketatuko dituzte eta 3 txarleteatik 1 sariduna izango da. Bidaiak, asteburuko egonaldia, afariak, bizikletak, jostailuak, ... irabazteko aukera izango du jokatzeko duenak».

Hirugarren ekimena Ford Focus autoaren zozketa izango da. Mendizabalek esan duenez, «Ford etxetik eskuratutako modelo berria zozketatuko da urriaren 6ean eta Inauterietan txartelak saltzen egongo gara».

Eskerrak Merkatarik eta Udalarik

Josune Aiestaranek, Irurako Ikastolako zuzendariak, eskerrak eman dizkie Tolosako Udalarik eta Merkatarik elkarteek. Horretaz gain, «Guria tabernaren jabea, Irurako, Anoetako eta Tolosako dendariak» ere eskerrak eman dizkie ekimen hauetan «laguntza handia» eman dutelako.

Tolosako Udalaren izenean, Andoni Iturzaetak (EA) hitz egin zuen. Kultura Zinegotziak antolatutako ekintzen inguruan, «ona da Inauterietako festari horrelako ekintzak gehitzea», esan zuen.



ANV-EAeko kideen eta idazkariaren arteko eztabaida. ASIER IMAZ

Hika-mika eta gaztelera nagusi ohiko udalbatzarrean

Ibarra » Gai-zerrendako bederatzi puntutan bilkuran bozkatu zuten alderdi guztiak bat egin zuten.

A. IMAZ

Ibarra udaltxean herenegun egin zen ohiko udalbatzarra. Hika-mikak eta gaztelera nagusitu ziren bilkuran zehar. Gai-zerrendei zegokionez, EAJk, EAK, Ezker Batua-Aralarrek eta PSE-EEk bat egin zuten puntu guztietan. Hori ondoz bederatzi puntu aurrera ateratu zituzten.

Hiru puntutan hika-mikak

Bilkurari Txelo Romeo alkateak eman zion hasiera 18:00ak inguruan. Lehen puntuan, azken bilkurako akta onartu zuten. Bozketa egin ondoren, ANV-EAeko zerrendakideek hitza hartu zuten aktari buruz hitz egiteko; «akta horretan bilkuran aipatu genituen gauzak ez dira agertzen. Langile batek publiko artetik esan zuena ere ez da isladatzen». Hor sortu zen idazkaria eta EAeko kideen arteko hika-mika. Idazkariak «ironiazko komentarioak» aktan ez zituela isladatuko azaldu zuen. EAeko kideek euren esanak ere ez zituela aktan jarri esan zien eta honek galdera-eskarietatik kanpo eginak zirenez, legearen arabera

ez zituela sartu behar aipatu zuen. EAeko Udalarik irten bidea eta euren iritzirik aktan agertzea eskatu zion, «berdin dion non, baina jartzeko».

«Arau Berriztatzaileak»

Bosgarren puntuan Rafael Poza arkitektoarekin eta bere taldearekin sinatutako lankidetzako kontratua deuseztatzea eta Arau Berriztatzaileen Berrikusketan onartu zen. Hirigintza alorreko gai honetan, EAeko kide batek hitza eskatu zuen: «Txalotu lehenik hutsetik hasiko diren arau berriak egiteko hartu den erabakia, herritar guztien parte-hartzea bilatuz. Hori baita ibarrek ze herri nahi dugun jakiteko modu bakarra, denon parte-hartzea bilatzea. Hala eta guztiz ere, Udal honi 21 milioi pezetan kostatu zaizkio aurrera irten ez diren arau zaharrak, orain balio ez dutenak». Txelo Romeo alkateak, arau zaharrekin egindako proiektuaren balioa hutsa ez dela azaldu zuen, «berriaren egokitu» egin behar direlako.

Torturaren inguruan


Bestalde, azken puntuan, torturen inguruko moziari zegokionean, abstentzioa bozkatu zuten alderdi guztiak, honen ordez deklarazio bat irakurri zutelarik. Moziak, publiko artean zegoen herritar batek irakurri zuen eta EAek «larritzat» jo zuen «moziak ez onartu izana».

Tosalaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Aparkalekuak, ibilgailuen joan-etorria eta Zubimusu dira kezka nagusienak

Zizurkil » Ugare auzoko obrei buruzko bilera egin zuten herenegun, eta 50 auzokide inguruk parte hartu zuten bertan.

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo Ugare auzoko obren inguruko bilera egin zuten herenegun arratsaldean. Bertan, Udaltzako ordezkariak eta teknikariak, Uraren Euskal Agentziaren ordezkariak, Mariezcurrena S.L. enpresa eraikitzailearen ordezkariak eta 50 herritar inguru elkartu ziren. Herritarren kezka nagusiak Villabonatik Asteasura joaten diren ibilgailuak auzotik pasako ote diren, Zubimusuk uholdeak eragiteko izan dezakeen eragina eta zenbat aparkaleku geldituko diren izan ziren.

Marian Lazkano alkateak balorazio «oso positiboa» egin du. «Bilera bat egiten denean Ugaren, beti



Atxulondo kultur etxean egindako bileraren une bat. HITZA

egoten da erantzun ona. Herritarrek beraien kezkak jarri zituzten mahai gainean eta ez dut uste asko aldatu direnik 2005etik, lan taile-

rrak egingenituenetik». Kezka nagusiei dagokionez, Ugare auzoan egingoden errepidean trafiko handia egon daitekeela azaldu zuten

herritarrek, Villabonatik Asteasura joateko erabili ahal izango dutelako. Errepide hori Udalarena izango dela azaldu du alkateak, eta beraz, neurriak hartzea Udalaren esku dagoela azaldu du.

Zubimusuri dagokionez, ondare historiko artistikoa denez, Udalaren esku ez dagoela zubia zabal-

tzeko aukera azaldu du alkateak. Ondarea babesten duen erakundeak esan duenez, zubia ez da aldatuko, baina konpontzeko asmoa badago.

Aparkalekuen gaiaren inguruan, alkateak dioenez, «dozena erdi bat plaza gutxiago egongo dira obrak amaitzerakoan. Nahiko aparkaleku izango dira gure ustez auzoarentzat».

Segurtasunaren inguruan

Raul Vazquez PPko zinegotziak obretan segurtasun falta zegoela salatu zuen eta horrek nolabait aurreratu egin zuen bilera egitea. «Oso garbi gelditu zen berak sortu nahi zuen alarma eta kezka hori, ez zettorrela bat Ugareko bizilagunen kezkekin», azaldu du Lazkanok. «Ugarekoek ez dute pentsatzen etxebizitzak eroriko direnik edo segurtasun falta dagoenik. Are gutxiago, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak emandako esplikaioak eta erakutsitako argazkien ondoren».

Bere aldetik, Vazquez-ek azaldu duenez, bileran «betoa» ezarri zitzaion: «Proiektorea erabiltzeko baimena eskatu nuen, nik ateratako argazkiak erakusteko bizilagunei, baina alkateak ez zidan utzi». Vazquez-ek «adierazpen askatasunik ez dagoela» salatu zuen, «ezin izan bainuen erakutsi bilerara joandakoei Ugareko obretan dagoen segurtasun falta».

S Soka motzean

«Usabalgoa da areto futbol kantxarrik onena»

ABEL ASENJO

Areto futbol epailea

ERREDAKZIOA

Abel Asenjo tolosarra areto futbol epaile gisa aritzen da areto-futboleko, Nazional A mailan.

Zergatik zara epailea?

Behin, Tolosa Kup torneoak pitatzen ari nintzela, Koldo Gorostiak ikusi eta animatu ninduen mundu honetan sartzera. Gaur arte.

Zein pauso jarraitu behar dira areto-futboleko epaile izateko?

Federazioarekin harremanetan jarri, arautegia ikasi, froga fisiko eta tekniko batzuk pasatu eta gogoz aritu.

Jokatzen ikusi duzun areto futboleko talderik hobereena?

Entreviu Fadesa.

Zelairik onena?

Usabalgoa.

Zaletu onenak?

Pozo Murcia taldearenak.

Izan duzun istilurik handiena?

Altzako torneoan, baina ez zen hainbestearinokoa izan.

Jaso duzun isekarik gogor edo xebearena?

Gogorrena... Xebearena, merluzo.

Zer esango zenioke publikoari?

Ulertzen saiatzeko eta lasaiagoa izateko.

Eta jokalariei?

Gauzak errazteko.

Miresten duzun epailerik?

Aitor Felipe eta Igor Gereta, goi mailako bi gasteiztar.

Nola ikusten dituzu Ibarra, Laskorain eta Hegoalde?

Hegoaldeki utzi behar izana pena izan da. Ibarri eta Laskoraini horretan jarrai dezatela eta ea goruntz egiten duten esan-goniek.

Anekdotaren bat?

Behin ONCEko torneoak pitatzen, jokalaria batek zera esan zidan: «Epaile, ONCEn lanean ari dena ni naizela!».



HITZA

Laburrak

Santa Ageda Bezperarako entsegua, etzi Ikastolan

ANOETA » Santa Ageda Bezperarako kantu entsegua egingo dute etzi. Baserriz baserri kantari irtingo direnei deialdia egiten zaie parte hartzeko. Entsegua 19:00etatik 20:00etara, Ikastolan izango da.

Altzariak zaharberitzeko tailerra antolatu dute

LARRAUL » Altzariak zaharberitzeko tailerra antolatu du Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak Larraulen. Herriko Kultur Etxean izango da ikastaroa eta otsailaren 20ean hasiko da, 14:30ean. Guztira 30 orduko iraupena izango du eta prezioa 30 eurokoa izango da. Izena emateko epea otsailaren 11n bukatzen da. Informazio gehiagorako 943 69 39 30 zenbakira dei daiteke.

San Blas Jaiei baitan, igandean meza egingo dute

TOLOSA » Aurten San Blas Jaiek atzeratu egin dira astebe, Inauteriekin bat egiten dutelako. Horrela, ekitaldiak hurrengo asteko ostiral, larunbat eta igandean izango dira, hau da, otsailaren 8, 9 eta 10ean. Igandean honetan, San Blas Eguna izanik, 11:00etan meza nagusia egingo dute.

Asteburu honetan ez da zinemarik izango

TOLOSA » Inauteriak direla-eta asteburu honetan ez da zinema emanaldirik izango Tolosako Leidor aretoan.

III. 7e Pasa Pilota Txapelketa antolatu dute

ALEGIA » III. 7e Pasa Pilota Txapelketa antolatu dute Alegian. Aurten berrikuntza batekin, banaka ere jokatuko dela, lau t'erdiko eremuan. Hasierako bilera egin dugu eta taldea eta egutegia egina dute. Banaka 28 pilotarik eman dute izena eta binaka 18 bikotek. Otsailaren 9-10ean hasiko da txapelketa eta maiatza inguruan bukatuko dela uste dute antolatzaileek. Bi txapelketetako egutegia eta araudia Kultur Etxean daude ikusgai. Parte-hartzaileek bertatik pasa beharko dute bai bata bai bestea jasotzera. Horrez gain kartelak jarriko dituzte astero.

Alkartasuna Biltokian txistor jatea, gaur

ANOETA » Alkartasuna Biltokian txistor jatea egingo dute gaur, 19:00etan, eta herritar guztiak gonbidatzen dituzte bertara. Bestalde, igandean honetan, Inauterientzatik, itxita egingo da biltokia.



11°
5°

GOIZA	ESTALIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	11°
HOTZENA	5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leizor: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leizor: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile


Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Etxeak eta kaleak ere Inauteriei ongietorria emateko prest

Tolosar ugari jeikiko dira gaur zeruari begira. «Hotzak ez du gehiegi axola baina euria...». Bezperan entzuten den esaldia, dudarik gabe. Izan ere, tolosarren esku geratzen ez den gauza bakarra horixe da, eguraldiarena.

Errezetaren gainontzeko osagaiak prest eta pil-pilean daude: festarako gogoak, mozorroen osagarriak, algarak, txistorra tabernetan, barrakak, txosnagunea, kaleak itxita... Eta nola ez, era guztietako apaingarriak.

Atzo kaleak zeharkatu zituenak dagoeneko Inauterietako usain hori nabaritu zuen. Balkoiak oihalkoloretzuekin estalita eta erakusleihoguztiak dotore-dotore, Ostegun Gizona behar den moduan jantzeko. Sei egun luze haue-tan zehar euriak behintzat ezingo du jai egarri hori zapuztu, bustiak edo ez bustiak hemen baitira Inauteriak. N. URSIZU

A Agurrak



Urte askoan!

Haitz Jauregi Aristi.

Gaur 4 urte.

Zorionak etxe-koen partetik.



Jaiak bai, borroka ere bai.

Zatozte presoen aldeko sagardotegira.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.

agurrak